

Arrasate

P R E S S

1996ko
Urtarrilak 26
305. zenb.

KULTURA

Marta Izagirre

KIROLAK

Pilota taldea


IRITZIA


Juan Ramon
Garai

UDALA

Udal Plenoko
gaiak

**Kotxea
garbi gero!**





III. MINTEGIA: INGURUGIROA LEGEAREN AURREAN

SISTEMA JUDIZIALA ETA INGURUGIROA

ASTEARTEA, urtarrilak 30 AURKEZPENA

Esther Larrañaga, Ingurugiro Sailburuordea.

Sarrera

- 4etan René Santamaria
(Ingurugiro Zuzenbidean aditua)
5etan Epailea.
6etan Juan Galparsoro
(Ingurugiroaz arduratzen den fiskala)

7etan - Mahai ingurua

Moderatzailea: Julen Rekondo (Ingurune)

INGURUGIROA ZAINTZA

ASTEAZKENA, urtarrilak 31 AMAIERA

Esther Merino,
San Viator Ikastolako Zuzendaria.

Sarrera

- 4etan SEPRONA
5etan ERTZANTZA
6etan Iñaki Aizpuru. (Basozaintza arduraduna)

7etan - Mahai ingurua

Moderatzailea: Mariano Ferrer
(Herri Irratiko kazetaria)

PLAZA MUGATUAK

Inskripzioa

3.000 pta.

Tokia

San Viator Ikastola

Tfnoa: 79 04 11

Arrasate Pasealekua, 10

ARRASATE



Plaza, oroimena eta amorrua

Arrasaten pasiatuaz gero (gutxitan, ezta?), gauza pila bat aldatuz doala oharzten naiz. Etxeak, dendak... Uharkape, Loramendi, Ospital Zaharra berri nahian.... Herria politagoa egiten? Bota dezagun txanpon bat eta galde diezaiogun putzuari! Ez dakizuela zein putzuz hitzegiten ari naizen? Bai, Ferrerias kaleko plazatxo moderno honetan dagoenaz, alegia.

Ez dut konparaketarik egin nahi, baina zera proposatzen dut: identitaterik gabeko txoko honetan zeharo ahaztutako norbait oroitzea. Sergio zen bere izena. Nork ez zuen ezagutu? Herri honetan, beste askotan bezala, norma edo ohikotik aldentzen denak, jasan behar izaten ditu, inbidiak, ezjakintasunak eta intenzio txarrekin astoratutako esanak (ugari). Berarekin gertatu izan zen bezala: herriko hainbat eta hainbat nagusi ezjakin eta ahozabalek, gazteriarren artean "droga" banatzea leporatzen zioten, eta



bere ingurutik alde egiteko eskatzen ziguten gurasoek. Zergatik? Lanik ez zeukalako; dotore bai, baina beti garbi ez zegoelako; ardoa biziki atsegin zuelako (lagun/etsairik handiena zuen, eta zuk ez?); jende nagusiarekin egon beharrean, gazteekin egotea nahi zuelako; edota, aukerarik eduki beharrean, beti bakarrik eta aske bizi nahi izan zuelako?

Inori gauza txarrik egin ez zion gizon hau gogoratu nahi dut, Arrasateko "Azken Anarkista" izandakoa, onerako edo txarrerako.

Eta, berari buruz, hala hitzegin zenutenentzat, madarikatuak, merezi duzuela zuen izenak aipatzea, defenditu ezin zitekeen Sergioren aurka,

koldarki, horrelakoak botatzeagatik.

Zer nahi duzue, ba, hau Donosti bezala bihurtzea edo? Txirorik ez, kaleetan, jenderik gabe? Ikusiko duzue, etorkizun batean, etxeak zeharo merketzen ez badira...

IKER BARANDIARAN



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,

"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaureritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrahaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karme Perez, Sorginak, Koppi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larriaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Raimungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Eirdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



Azala: Goio Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

HIES EKIMENA

Astelehen,
astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa:
79 26 99

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Eskerrik asko Iñaki

Joan zinen Iñaki maitea. Bai, ni baino lehenago. Ez ahaztu hemen egongo naizela. Euria izango naiz, haizea eta eguzkia betirako zu ferekatuz. Haizea epela eta biguna izango da, zuk atsegin zenuen bezalakoa, eta ulertzen baduzu ezagutuko nauzu.

Hori, zure irrifarra, nere bihotzeko atea zabaldu dizkizun marfilezko gortina bat da. Irrifar hori zu zara. Zure ama naiz ni, eta hori betek horrela izango da.

Iñaki semeari nire eskerretatik eta adierazten ez dakidan beste zenbait sentimendutik eskaintzen diodan honekin batera, nik Domik gauza asko esan nahi nioke Arrasateko herriari. Ezin izango dut oso erraz ahaztu abenduaren 22a. Santamas eguna zen. Oso egun alaia Arrasaten. Baina festa onenean utzi eta gurekin egon zineten, Iñaki nire semearen familiarekin. Badakit, eta egia da, gure elkartean lan handia egin dugula. Horixe dakigula! Baina ez genekin hori ikusi eta ulertzen zuen jende asko zegoenik.

Egun eta une hortan gauza asko ulertu nuen. Beste batzuen artean, gizakion kategoria ez dela diruagatik edo statusagatik neuritzen. Ez da guretzat hori berria zela, baina bertan ikustea, eliz-atarian nire semea gertuan zegoela eta berari agur esanez, ama bezala laguntza eman zidan.

Jainkoari esker, gure arazorik ez duen ama asko ikusi nuen, eta hala ere gurekin batera egiten zuten negar. Aitak, negar ez egiten saiatzen ziren gizonak, euren laguntasuna eman ziguten, euren beroa. Tratu alde batera utzita geneu-

kan senide asko ere aurkitu genuen.

Eskerrik asko Iñakiri, nire semeari, asko ikasi dugu bere gogortasunetik, bere borrokatik, joan aurretik amatxo deitzeko zuen formatik.

Eskerrik asko Arrasate nire familiarekin egotearren, nire semeekin eta nirekin. Eta batez ere erakustearren HIES-Ekimena lanean ari dela eta emaitzak lortuz. Zeren, beste gauza batzuen artean, emaitza jendea behar zen tokian zuek egotea izan da, eta han zeundeten.

Eskerrik asko!

DOMI KORTA

Zehaztapen batzuk

1996 urteko urtarrilaren 21ean *Diario Vasco* egunkarian argitaratu zen "Santamaña a toda página" erreportaia irakurri ondoren eta bertan datorren "Euskaraz ulertzen dute baina ez dute hitzegiten" informazioari buruz "La Merced" ikastetxeko irakasleagoak honako xehetasun hauek eman nahi dizkizue aditzera:

1- Ikastetxe honetara datozen ikasle guztiek euskara hitzegiten eta ulertzen dute.

2- Hauek mugitzen diren giza-ingurunea dela eta, batzueri askos errezagoa zaie erderaz hitzegitea.

Horra hor gure urteetako lana, beraiek hizkuntza hau, ikastetxe barnean ezezik hemendik kanpo ere gara dezaten.

3- Euskara, ikastetxetik kanpo ez erabiltzearen arazoa, ez dela ikastetxe honi bakarrik dagokiona deritzogu.

"LA MERCED"
IKASTETXEKO
IRAKASLEGOA

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzeailaren izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

Zuzenketa

Joan den asteko aldizkarian, Santamainako ludotekako gazteek "Gora-Berri-Behera" aldizkaria argitaratu dutela esan genuen, baina ez dira ludotekako umeak aldizkaria egin duten bakarrak, Santamainako haur-liburute-giko gazteekin batera egin dute eta.

Zergatik jaiotzen da hain ume gutxi?



Juan Mari Zuazubiskar
Mekanikoa
(29 urte)

Ba lanik ez dagoelako lehenengo eta gero ba arazo asko sortzen direlako familia guztietan.



Teresa Gallastegi
Tabernaria
(42 urte)

Ez dakit, erosotasunagatik den edo ekartzen ditugun umei gauza gehiegi eman nahi diegula, baina kontua da ezin dela ume asko ekarri.



Jesus Unzueta
Kamareroa
(40 urte)

Zergatik izango da bada? bizimodua oso garesti dagoelako.



Ana Isabel Presas
Langabetua
(26 urte)

Ni neu haurdun nago eta irailan ekarriko dut ume bat.



Jose Antonio Lozano
Langilea
(58 urte)

Krisiarengatik edo izan daiteke, lanik ez dago, eta horrela... ba zaila izaten da.



Josune Gonzalez
Irakaslea
(34 urte)

Jendea beranduago ezkontzen delako orain, eta emakumeak, gizartean orain paper handiagoa daukalako, zer esan handiagoa duelako.



Lazaro Ugartetxea
Jubilatua
(81 urte)

Auskalo, hori neskei galdetu.



Aurora Soto
Dendaria
(36 urte)

Diru asko kostatzen da eta. Ez da erraza ausartzea, gauza asko eman nahi zaie, gauzak oso garesti daude eta ez dago dirurik aurrera atera ahal izateko.



PARDO estetika zentrua

ARGIZARIZKO DEPILAZIOA

10 saiotatik orain 1 dohan

Iparragirre Enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE

Eskaintza bereziak!

***SOLARIUMA DUTXAREKIN**

Lehen

10 saio
+
1 dohainik
~~14.000 pta.~~

Orain

10 saio
+
1 dohainik
8.000 pta.



*Apirilak 30era arte baliagarria.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 26

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Larunbata 27

Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Igandea 28

Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Astelehena 29

Egunez eta gauez: Ameza. Santamaina.

Asteartea 30

Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteazkena 31

Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Osteguna 1

Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

26 OSTIRALA

• ZINEA

"Two Much". 7etan eta 10etan.

• SAN BALEIXO JAIK

Meatzerreka auzoan. Arratsaldeko 8etan jaien hasiera, 9etan auzo afaria eta erromeria herriko trikitilariekin.

• DIAPORAMA EMANALDIA

Murruixok antolatuta. "Madre de Dios Amazonas" diaporama emanaldia. Gaueko 10etan, Aretxabaletako Zaraia zineman.

27 LARUNBATA

• ZINEA

"Two Much". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• TXATXILIPURDIREN LUDOTEKA IBILTARIA

San Andresko alkatetzan, goizeko 11etatik ordubata arte.

• IRRATSAIOA

Loiolako Herri Irratiak, "Herriz Herri" irratsaioa egingo du Arrasaten. Goizeko 11etatik ordubatera. Hizlariak: Xabier Zubizarreta alkatea, Jose Mari Loiti Mankomunitateko presidentea, Julian Balanzategi ELA ko kidea. SPRI eta Saiolaneko kideak ere izango dira.

• AUTO KARABANA

Gestorak deituta. Arratsaldeko 3.30etan Arbolapetatik aterako da auto karabana. Ondoren manifestazioa egingo da Bergaran, arratsaldeko 7.30etan.

• SAN BALEIXO JAIK

Meatzerreka auzoan. Arratsaldeko 4etan ume eta gazteendako jolasak eta herri kirolak. 5etan XV. mus txapelketa. Gaueko 11etan erromeria "Anaiak" taldearekin. Goizaldean txerri harrapaketa eta txokolatada.

28 IGANDEA

• ZINEA

"Two Much". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• SAN BALEIXO JAIK

Meatzerreka auzoan. Goizeko 11etan meza San Baleixo ermitan, Goikobalu abesbatzak parte hartuko du. Eguerdiko 2etan buruhandak eta jaien amaiera.

• BATZAR NAGUSIA ETA MEZA

San Felipe Apostol kofradiako batzar nagusia. Eguerdiko 12.30etan, San Viator ikastolan. Goizeko 11etan meza izango da San Juan parrokian, hildako bazkide guztien alde.

JUBILATU ETXEETAKO BAZKIDEEI OHARRA

Toki-Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarriko jubilatutako etxeetako bazkideek, elkarteko karneteen zigilu berria jarri beharko dute. Zigilua elkartean jarriko da, otsailaren 5etik martxoaren 30era. Zigilu berria jartzea derrigorrezkoa da, jubilatutako etxeek eskaintzen duten zerbitzuez baliatzeko.



XV. MUS TXAPEIKETA

Urtarrilaren 27an, Meatzerreka elkartearen, arratsaldeko 5etan. Txapelketan parte hartzeko izenematea 4.30etan egin beharko da. Bikote bakoitzak 3.000 pta. ordaindu beharko du.

29 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Two Much". 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU**
Herriko plazan arratsaldeko 7.30etan.

30 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Two Much". 7etan eta 9.30etan.
- **MINTEGIA**
Gaia: Ingurugiroa legearen aurrean. Arratsaldeko 4etatik 6etara hitzaldiak. 7etan mahaingurua. San Viator ikastolan.
- **BATZAR NAGUSIA**
San Frantzisko Xabier ikastolaren batzar nagusia. Arratsaldeko 6etan lehen deialdia, 6.30etan bigarrena.

31 ASTEAZKENA

- **MINTEGIA**
Gaia: Ingurugiroa legearen aurrean. Arratsaldeko 4etatik 6etara hitzaldiak. 7etan mahaingurua. San Viator ikastolan.

SALOI DANTZA IKASTAROA

EKIN emakume taldeak antolatuta. Asteazkenetan, 5:15etatik 6:15 arte. Izenematea AEDko lokalean edo 77 12 28 telefonora deituta.

EA-ri BOTOA POSTAZ

Postaz Eusko Alkartasunari botoa eman nahi diotenek, EA-ren egoitzatik pasa beharko dute, arratsaldeko 5etatik 8etara.



IRRATI TAILERRA

Gazte Zerbitzuak antolatuta. 16 urtetik gorakoei zuzenduta. Bi aukera: irratia egiten ikastea edo irratiko kontrol teknika ikastea. Iraupena: otsailaren 28tik maiatzaren 22ra. Eskolak asteazkenetan emango dira, arratsaldeko 7etatik 9etara. Izenematea Gazte Bulegoan, 77 00 65.

EMAKUMEENDAKO IKASTAROA

Arrasateko Udalaren Emakume Sailak, emakumeendako prestakuntza eta lanbide ikastaroa antolatuta du. Ikastaroa arratsaldez emango da. Izenematea, urtarrilaren 31a baino lehen, Udal Emakume Sailean edo 79 41 39 telefonora deituta.

KARTEL IKASTAROA

Ixa-lxe komiki taldeak antolatuta. Asteazkenetan, arratsaldeko 6etatik aurrera. Aste Santura arte irauango du ikastaroak. Izenematea AEDn, 77 12 28 telefonora deituta.

“Hirukoa, nazionalista espainolei erabat eroso doakien formula da. Azken finean, trantsizioan asmatu zen Autonomien Estatuak ireki zuen bidea urratzen jarraitzen du Hirukoak, aurretik Bikoak bezalatsu.

Euskal Herriak jasaten dituen arazo nagusiak erabat saihesten ditu, alegia, lurralde batasuna, euskara hizkuntza nazionala, preso politikoen etxeratzea. Eta gaur egun esan daiteke arazo nagusi hauek, Legebiltzarrean ezik, kalean baino ez direla planteatzen. Hiruko gobernuak, esan behar da, bizkar eman diola euskal gizarteari; jakina, haserako jarrera desberdinik nabari daitekeela PSOE, PNV edota Eusko Alkartasunaren artean, baina lehenengoak inposatzen ditu jokorako zelaia eduki behar dituen baldintzak.

Eta bera da, PSOE (nahiz eta berdin xamar izango zatekeen PP ere) irabazle ateratzen den bakarra; hots nazionalismo espainola. Azken finean (eta 15 urte luze igaro ondoren) trantsizioan eskuma espainolak diseinaturiko eskema politikoa kokatzen baita”.

Xabier Zubizarreta, urtarrilak 21,

ARGIA

“Azken urteotan berdintasunaren bidean aurrera ibilaldi luzea egin dugu. Emakumeek gero eta ardura gehiagoko lanpostuak lortzen dituzte. Zenbait arrazoi dago joera horren atzetik: lege-araubidea, kultura arloan gutxinaka baina jarraiki gertatu den bilakaera, eta, batez ere, emakumeek berek aurrera egiteko dituzten aukerak ikusi dituztelako eta horiek lortzeko gogor ekin diotelako. Baina oraindik ere garbi dago berdintasuna ez dela nagusi emakumeen eguneroko bizitzan. Hain zuzen ere, lege-araubidean berdintasuna lortzeko lege-oinarriak jartzeari garrantzitsua da, baina ez nahikoa”.

Mikel Zabala, abendua 95,

EMAKUNDE

Zertarako antolatu duzue eskolarako material biltzeta?

Gipuzkoako Gurutze Gorriak, Kubako ume-
ei eskolako materiala bidaltzeko kanpaina jarri du abian, eta Deba Garaiko Gurutze Gorriak eskualdean materiala biltzeko ardura hartu du. Ekimen horren helburua arkatzak, borragomak, boligrafoak, koadernoak... jasotzea da.



Jose Luis Arana
Deba Garaiko Gurutze Gorriko partaidea

Alde batetik eskoletara gutunak bidali ditugu, ikasleek eta ikastetxeek euren ekarpena egin dezaten. Bestalde, eskolarako materiala saltzen duten dendatara jo dugu, eta zaharkituta edo ezin saldu geratu zaien materiala eskatu diegu. Horrez gain, denda batzutan kaxa batzuk jarri ditugu, nahi duten guztiek bertan Kubara bidaltzeko materiala utz dezaten. Arrasaten Naroki liburudendan, Tamayon, Kopypresten eta Ttukunen jarri ditugu kaxak.

Otsailaren bukaera arte iraugo du kanpainak eta espero dugu erantzun ona izango duela. Orain arte, Oñatin eta Aretxabaletan jaso dugu zerbait eta pozik gaude erantzunarekin.

Materiala Kubako airelinea baten bidez bidaliko da materiala irlara eta ondoren, Kubako Gurutze Gorria arduratuko da bana-keta egiteaz. Astero-astero 1.000 kg. inguru bidaltzea aurrikusia dago.

Bukatzeko esan, dudaren bat duenak edo materiala beste era batera eman nahi duenak 76 55 76 telefonora dei dezakeela.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



JUAN CARLOS

Hego haize gogorak kalteak eta suteak eragin

Igandeko haize bortitzak hainbat sute eragin zuen Arrasate inguruan. Goizeko 9.00ak inguruan sua piztu zen Udala eta Garagartza inguruan, handik gutxira Bedoñan eta bitartean, Zubillaga

eta Urkulu artean izugarrizko sutea hasi zen. Suteak zenbait pinudi erre du, batez ere pinu gaztea. Arratsaldeko bostetan, gainera, Makatzena auzoko etxe batek su hartu zuen. Etxea kiskalita geratu

zen, eta bertan zeuden bi emakume ospitalera eraman zituzten arnastu zuten kearen eraginez. Suaz gain, haizeak hainbat zuhaitz bota eta zenbait kristal eta poste telefoniko apurtu zituen.

Gustora Markeliñe taldearekin

Ostiralean 200 lagun eta larunbatean 250 inguru hurbildu ziren Amaia antzokira, Markeliñe taldearen antzezlanara ikustera. Emanaldia ona izan zen, eta ikusleek nahiko barre egiteko aukera izan zuten.

Ertzantzaren autoari eraso

Ertzantzaren auto baten kontra eraso egin zuten

ostiral gauean. Garibai inguruan patruilan zebilen ertzantzaren autoari, suziriak bota zizkioten. Suziriak ez ziren auto barrura sartu.

Giro ona bertso afarian

Garagartzako Leze Txiki elkarteak bertsozalez bete zen zapatu gauean. Peñagarikano eta Egañaren eskutik bertso afaria izan zen eta ekitaldian izan zirenen esanetan, saio ona izan zen.

Antton Elortzaren aldeko manifestazioak

Joan den ostegunean eta ostiralean manifestazioak egin ziren Arrasaten, Antton Elortzaren atxilotaren aurka protesta egiteko.

Antxonek, bitartean, Badajozen atxilotuta jarraitzen du eta Iñaki Esnaola abokatua kasua aztertzen ari da. Familiartekoak asteburuan izan ziren Antton bisitatzen eta emaztearen esanetan, senarra urduri dago zer gertatuko zaion ez daki eta.

JAIOZAK

- Mikel Mendizabal Bengoa. Urtarrilaren 10ean.

HILDAKOAK

- Antonio Carmona Miranda. Urtarrilaren 2an.
- Santiago Boisa Castela. 12an. 24 urte.
- Jose López Dominguez. 17an. 81 urte.
- Aurea Serrano Villán. 18an. 62 urte.
- Manuel Uriarte Martinez. 19an. 94 urte.



URONDO

elektrizitatea

* Elektragaiak

* Instalazioak

* Automatismoak

* Proiektuak


* Argiztapena

* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



* Juan Ramon Garai

CC.00k lehentasuna paktoen bideei

Langile Komisionen Viren kongresoa: Lahalegin nabarmenak akordioaren bila.

Gauregun, langile komisionen gehiengoak borondate handia dauka akordioerako, eta beraiekiko egoera mesedegarri bat lortzen saiatzen dira sindikatu barruan; hau dela eta zuzendaritzarekiko lanen posizio kritikoak duten pertsonen baztertu dituzte; hau ez da izan denontzat ardurarik ez dagoelako izan, baizik eta ez dutelako posizio desberdinekorik nahi.

Badirudi PPK ere akordioaren bidetik apostu egiten duela, baina hau ikus ahal izateko, Gobernuak lortu arte itxaron beharko dugu, eta orduan sindikatuak zer emateko prest dagoen aztertu.

Gerta daitekeena, hauek ere PSOEren ildo berdinetik jarraitzea da, hau da, langileak ez ezik babes gutxieneko arloak ere gehiago kolpatzea. Azken finean, hau da, OCDEk definitiboki egiten duen gomendia: "Espainia-

ko gizarte aseguratza eskuzabalegia dela esatean, kanporaketak garestiegiak direla e.a."

Hau dela eta, Langile Komisionak (zuzendaritzak) elkar aurkeztera konfrontaziora behartua izatea espero dugu.

Ez dirudi inork sindikatuaren banaketaren alde apostu egiten duenik.

Baina sindikatuko gehiengoaren eraso antidemokratikoak, konfederazio

.....

"Gutierrezek «Etorkizunak dakarkigun erronken aurrean erantzunik egokiena Langile Komisionak eta UGTren arteko batasuna da» dio, baina ez zaio axola sindikatuaren batasuna"

ejekutiboko hemeretzi kiderenak, ehuneko 37ari ez dio, ez ardurarik ez soldatarik emango; ondorioz badirudi gehiengoari gutxi axola zaiola sindikatuko barruko tentsioa haunditzea. Hau guztiz arduragabekoa da eta Gutierrezek bere txostenean jasotzen duenarekin kontraesanean dago: "Etorkizunak dakarkigun erronken aurrean erantzunik egokiena Langile Komisionak eta UGTren arteko batasuna da" sindikatu beraren batasuna axola ez zaiola ematen duen bitartean, zalantzan jartzen ari da.

Korrante kritikoak esperientzia praktikoa burutu behar du.

Nahiz eta informe orokorrarekiko emendakinez eta kritikez jorratutako ildo bat defendatu, koherente eta ezkertiarra (hau dela eta ezker sindikatuko ordezkariak emendekin horien alde bozkatu dugu) beste horrenbeste egin du gutxiengoak ezker sindikalaren emendakinekin. Orain ikustekoa da idatzita dagoena praktikara eramateko gauza diren ala ez.

Estatu espainoleko nazio aniztasunarekin ahanzkortasuna.

Nazio zapaldu bateko sindikalista moduan, gehien harritu gintuena zera izan zen: zentralismoa eta sindikatuaren barruan dagoen linguistikaren aniztasunarekiko sentsibilitate falta. Hau izan zen gai garrantzitsuena euskal delegazioko informe orokorraren eztabaidan.

Guk egindako kritikak partzialki onartu eta defendatu zituen plenoan Euskal Herriko Langile Komisionetako idazkariak. Nahiz eta Gutierrezek ontzat hartu ez. Azkenengo hau, guretzat lehendakariak gabe gelditzea baino garrantzizkoagoa da.

* LANGILE KOMISIOAK

USTEAK USTE

KAZETARITZAZ

Ez zegokidan niri aste honetako zutabetxoa, baina baten astirik ezak eta bestearen ezinak ekarri naute berriro portu honetara.

Ikusten direnak ikusita, entzundakoak entzunda eta idatzitakoak irakurrita behin baino gehiagotan sentitu dut lotsa ogibidetzat kazetaritza izatearren. Joan den astean, baina, hainbat komunikabideren jokaera nire lotsaren mugatik harakoa izan zen.

Goizean goizeko albiste-giek lau haizeetara zabaldu zuten primizia: Antton Elorza arrasatearra atxilotua Badajozen. Goiz hartan irriti desberdinetan aditu nuen egi bakarra, hortik aurrera gezurra nagusi: Yoyesen hiltzailea, ihesean ia hegomerika osoan, ETAr arrisku-tua, ez dakit zenbat denbora justiziari adar joka... Perla ederrak. Eguerdirako, nonbait okerraz jabetuta, beltza zuritzeko lana. Gauean, oraindik, Espainako telebista bat goizeko berriak aidentzen.

Profesionaltasunik ez.

Edozein kazetaritzako oinarriko printzipioak: sakontasuna, informazioaren baliogarritasuna, kontrastatu beharra... batek daki non. Duintasunik apenas! inork ez zuen eta, ustezko berria zena zelako, hankasartzea onartu, ezta barkamenik eskatu ere. Terrorismoaren aurkako borrokaren interesen izanean, aurreko dena ahaztua, zintotasunez eta borondate onez informatzeko asmoei uko. Eta ordurako kaltea eginda: lanean lasai zebilen bat atxilotua, ezjakintasuna medio familia-koak jota, semeak aita hiltzailea den galdezka... eta inork barkamena eskatzeko gaitasunik ez.

Lerroak aurrera eta esateke oraindik Antton Elorza espetxean daukatela, zentzu barik, ondo konturatu dira horretaz arrasatearrak. Gaizkileak bergizartaratzeko ei da gartzela. Eta nor bergizartaratzetik ez dagoen, zer?

BEÑARDO KORTABARRIA



Datorren asteazkenean onar daiteke legealdirako plana.

Datozen lau urteetarako jarduna finkatuko du Mankomunitateak

Mankomunitateko kideek datorren asteazkenean egingo duten bilera garrantzitsua izango da, 96-99 legealdirako plana onar daiteke eta.

Legealdi honetan aurrera eraman nahi diren ekimenak jasotzen dituen txostena, azaroan banatu zien lehendakariak batzordeko kideei. Ordutik txostena aztertu dute kideek eta asteazkenean, ekarpenak egin edo aldatu proposatzeko aukera izango dute. Akordioa lortzen badute plana onartu egingo da, eta bestela, datorren hilean emango diote oniritzia.

Txostenean jasotzen denaren arabera, lurralde antolamenduaren gidalerroak egin beharko direla eta, datozen lau urteak garrantzitsuak izango dira. Lurzoru industrialaren gestioa ere egin nahi da, ekimen enpresarial bat dutenei lurzoru industrialak eskaini ahal izateko. Ingurugiroari dagokionez, AKEIko erraustegia abenduaren 1ean itxiko denez, zein irtenbide emango zaion jakingo da. Gai

hori hala ere Diputazioaren esku dago, eta otsailaren erdialdean jakinaraziko du Gipuzkoarako zein alternatiba proposatzen duen. Enplegu arloan, berriz, INEMekin lankidetzaren hitzarmena sinatu eta eskualderako mahaia sortu nahi da. Mahaia lan munduan zerikusia duten agenteek osatuko lukete eta helburua, langabeziari aurre egiteko ekimenak planteatzea litzateke. 97rako, gainera, bukatuta egongo da Ekimen Enpresarialetarako Zentrua, eta horren bidez toki fisiko bat eman go zaie ekimen enpresarial bat abian jarri nahi dutenei. Horrez gain, txakurtegia antolatu eta hiltegiaren zerbitzua hobetu nahi da.

German Bereziabarrek, Mankomunitateko gerenteak esan bezala, "aurrera eraman daitezkeen ekimenak aipatzen dira planean".

Legealdirako jarduna finkatu bezain laster, 96rako aurrekontuak egiten hasiko dira Mankomunitatean. Aurrekontuetan ikusiko da planean jasotzen denetik aurrera zer egingo den.

Dirulaguntzak onartu

Asteleheneko gobernu batzordean zenbait dirulaguntza luzatzea onartu zen. Errege kabalगतको komisiok ia 300.00 pta. jasoko dute, Santa Agedako koruak 45.000 eta SUDC batzordeak 100.000 pta.

LABek ponentziak banatu

Deba Garaiko 50 afiliatu eta ordezkariak, LABek egingo duen kongresurako ponentziak jaso zituzten asteartean. Kongresua laugarrena izango da eta apirilaren 19an eta 20an egingo da Bilbon. Otsailaren bukaera arte ponentzia eztabaidatu eta emendakinak aurkezteko aukera izango da. Ondoren, emendakinak eztabaidatuko dira eta azkenik, kongresua egingo da.

Aukera berdintasunaren aldeko kanpaina

Otsailaren 9an Borondatezko Barau eguna izango dela eta, Manos Unidas taldea, "Kultur ugartasuna, aukera berdintasuna" lemapean kanpaina burutzen ari da. Dirulaguntza eman edo taldearen iharduerari buruzko informazioa nahi izanez gero, helbide honetara idaztea besterik ez dago: Manos Unidas, Loyola 15, 3.ezk., P.K.: 20.005 Donostia. Tfa: 42 45 10.

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

beatriz


oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Elkarketa zibilen udal erregistroa sortzea proposatu du Ezker Batuak

Ezkundu barik baina bikote modura bizi nahi duten bikote heterosexual eta homosexualendako, Arrasateko Udalean Elkarketa Zibilen erregistroa sortzea eskatu du EBak. Erregistroan izena emango dutenek babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa izango dute. Erregistroa sortzearen eskaria gaur, ostiralean egingo den plenoan eztabaidatuko da, EBak mozioa aurkeztu du eta. Mozioan esaten denez, ohiko administrazio tramiteak egin barik elkarrekin bizi izatea erabakitzen dutenak gero eta gehiago direlako egin da proposamena.

Horretaz gain, beste zazpi gai ere eztabaidatuko dira. Markulete inguruko zati bat



Ezkundu barik baina bikote moduan bizi nahi dutenendako izango da erregistroa.

urbanizatu barik dagoenez, toki horretarako urbanizazio proiektua onartuko da gaur.

Ezustekorik?

Azken plenoak ezusteko beteta egon dira, gai zerren-

dan ez zeuden gaiak aztertu izan dira eta. Azkenekoan, adibidez, A-20 arearen auzia jarri zen mahai gainean. A-20ri dagokionez, Udalarri proposamen berri bat egin diote jabeek eta ofizialki martitzeneko

hirigintza batzordean jakinaraziko dute. Horregatik, plenoan ez dela aztertuko esan daiteke. A-20ko jabeek egin duten proposamenean, epailerek erabakia eman arte Udalak ordainketa tramiteak ez hastea, eta Deba erreka kanalizazioa ez ordaintzea eskatzen da besteak beste.

Presoen inguruko gaia ere aterako da seguruenik, Senideak-eko kideak pleno aretoan izango dira eta. Pleno ko gai zerrenda itxita zegoela Senideak-ek idatzia aurkeztu zuen Udalean alderdiei zera galdetuz: ea zer egin duten presoen Euskal Herri ratzea eskatzeko. Gai zerrendan ez dator puntu hori, baina aretoan izango direnek egingo diote galdera alderdiei.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Etxez-etxeko laguntza behar dutenei langile bat bidaltzen zaie etxera.

Ehun arrasatearrek jasotzen dute etxez-etxeko laguntza

Pertsona nagusiei edo elbarritasunen bat dutenei zuzenduta dagoen etxez-etxeko laguntza, 100 arrasatearrek jasotzen dute. Guzti horiei ordu batzuetarako langile bat bidaltzen zaie, etxeko lanak egiteko besteak beste. Iaz laguntza horretan 57 milioi pta. gastatu ziren herrian eta erdia baino gehiago Diputazioak ordaindu zuen. Onuradunek ere zerbait ordaindu behar dutenez, hiru milioi era horretara lortu ziren eta gainontzekoa Udalak ipini zuen.

Pobrezia laguntza, berriz, herriko 183 familik jasotzen du. Laguntza moeta horre-

tan Diputazioarenak eta Udalarenak daude. Diputazioak oinarritzko beharretarako dirua ematen du eta Udalak, etxearen alokairua, argia eta ura ordaintzeko. Arrasateko 81 familiar bi laguntzak jasotzen ditu; gainontzekoak, berriz, bata edo bestea. Iaz 27 milioi pta. luzatu ziren probrezia laguntzarako eta 24 Diputazioak eman zituen.

Horrez gain, elbarrituendako edo garraio publikorik erabili ezin dutenendako bono-taxi programa dago. Laguntza horretaz 16 arrasatear baliatzen dira, eta iaz 1.200.000 pta. gastatu ziren. Diputazioak erdia finantzatu zuen.

III. Mintegia San Viatorren

“Ingurugiroa legearen aurrean” gaia aztertuz, urtarilaren 30ean eta 31n mintegia burutuko da San Viator ikastolan. Bi egunetan zehar, hainbat aditu hurbilduko da San Viatorrera ikuspuntua azaltzera. Aurten 40 laguni emango zaie mintegian parte hartzeko aukera. Aurkezpen ekitaldia Esther Larragañak, Ingurugiro Sailburuordeak egingo du.

EBZ-aren eraketa atzeratu

Martxoaren hasieran eratu da Enpresa Berritzaileen Zentrua. Azken momentuan Diputazioak ere Arrasateko EBZren bazkide izatea erabaki duelako gertatu da atzerapena. Proiektuan murgilduta dauden aldeek, SPRIk, Udalak, Eskola Politeknikoak eta Diputazioak, bilera izan zuten asteartean, eta 75 milioirekin EBZa abian jartzea erabaki zen. Hasiera batean Saiolanen izango du egoitza zentruak, baina Saiolanen nahikoa leku ez dagoela eta, etorkizunean beste toki bat izango du.

Baster-alde

Tatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa *ARETXABALETA*

Tfnoa: (943) 79 24 58

YOSU HERMIK

VENTANAS AISLANTES S.L.

Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Neska hau Arrasateko 40 etxetatik pasako da SIADECOK agindutako inkesta bat egiten. Inkesta horren helburua euskeraren erabilpena Arrasaten zein den ezagutzea da eta


Eider Muruamendiaraz arduratuko da inkesta horiek egiteaz. 20 euskaraz eta 20 erdaraz egingo ditu eta otsailaren 9an amaituko du etxez etxeko bira.



Aste honetan beste bisita bat izan dugu ARRASATE PRESS eta Arrasate Telebistan. **AEKko ikasle talde bat** aldizkaria zelan egiten den ikustera etorri zen. Izan ere, AEKko ikasleak dira astero astero Arrasate Presseko inkestak egiten dituztenak. Talde honek lehenengoz egingo ditu inkestak eta lanean hasi baino lehen, erredakzioa ezagutu nahi izan zuen.



*Urteroko zitari ezin hutsik egin eta hainbat ikastetxeko aurre-eskolako umeek tanborrada jo zuten **San Sebastian bezperan**. Gurasoak aurrez aurre zituztela sukaldari txapela buruan jarri, amantala gerrian lotu eta makilak eskuartean, gogoz jo zituzten tanborrada-ko doinuak. Halako burrundadarekin, malko batzuk ere izan ziren baina berehala baretu ziren ume txiki negartiak andereñoen besoetan. Argazkiko umeak Erguingo Herri Eskolakoak dira.*



Joan den urteko **bertso-afariaren** arrakasta ikusita eta auzokideak bertsolaritzaren mundura gerturatzeko asmoz, aurten II. Bertso Afaria egin zuten Garagartzako bizilagunek. Egaña eta Peñagarikanoren bertsoekin ederto pasa zuten guztiek eta bi sukaldari hauek prestatutako bazkari goxoarekin, bapo bapo geratu ziren garagartzarrak.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorraketa mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



Bonaventura • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g behea
ARRASTE
Tfnoa: 79 11 72

IZEN PROPIOAK

● Arrasateko Eusko Alkartasunaren herri batzordea berritzeko bilera egin zen urtarrilaren 11n. Lehendakaria **Luis Etxebarriarteun** izango da. Bokalak: **Kontxi Etxebarria, Nicolas Iriarte, Ainhoa Menika, Igor Altuna, Jasone Giraldo, Pedro Mari Ruiz de Azua, Isabel Gallastegi** eta **Angel Larrañaga**.

● **Nestor Garai**, 28 urteko arrasatearra, "C Programazio Lengoaia" izeneko liburua idatzi du beste lankide batekin batera. Liburua informatikari buruzkoa da eta Elhuyarrek argitaratu du. Donostiako Informatika fakultateko irakaslea da Nestor.



Joan den asteko aldiz'arian 96ko lehen ume arrasatearra urtarrilaren 14an jaio zela esan bagenuen orain, baina huts egin genuen. Argazkiko umetxoa da 96ko lehen arrasatearra, baina

ez zen Arrasaten jaio, Gasteizen baizik. Bere izena **Mikel Mendizabal** da eta urtarrilaren 10ean eguerdiko 12.40etan jaio zen. 3 kilo eta 700 gramoko pisua izan zuen

Mikelek jaiotzerakoan eta bere amak, **Agurtzane Bengoak** esaten duenez, mutil zintzoa da, jan eta lo besterik ez ei du egiten. Mikel Mendizabaltarren bigarren semea da.

Aurpegi zahartuak, odolezko zauriak, ile eta haragi artifizial prote-siak... horrelako gauzak egin eta aurpegian jartzen ikasten ari dira Zaldibarko ikastexean burutzen ari den **karakterizazio eta makilaia ikastaroan**.

13 lagunek eman duten izena eta ezin hobeto pasatzen dute bata besteari aurpegia margotu eta itxura desberdina ematen. Marta Miguelezen zuzendaritzapean, martxoaren 26ra arte ibiliko dira ikasleak efektu espezialen teknikak ikasten.



TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

● Txitxinpe ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



HIES EKIMENA

Astelehen, astearté
eta ostiral
5etatik 8etara.


Tfnoa: 79 26 99

**Zatoz,
Markuleten
gaude!**

Markulete Industrialdea
21, 22 pabilioiak
ARRASATE
Tfnoa: 79 21 26



**Gu bisitatzeak
lan asko
kenduko dizu!**



Logelarako altzariak, lanparak, edredoak...



**Bainurako guztia:
altzariak,
keramika,
griferia,
manparak...**




Sukalderako altzariak, elektragailuak



Egongelarako altzariak, su-bajuak...

ETXEA JAZTEKO BEHAR DUZUN DENA.



ANEREA
GALERIA DEL HOGAR

**Profesional
onenak
bat eginda!**

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamabigarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Jose Merino, Jorge Ezkurra*
- *Taldeen aurkezpena: Kamasutra, Aurrera Bolie, Los Dimy eta Gazte Txokoa.*



Aurrera doa txapelketa eta aurrera egite horrek badu eraginik txapelketako martxan. Izan ere, lehen fasearen bukaera gertu samar dagoen honetan, beste talde bat kanporatu behar izan dute antolatzaileek, zegokien partidua jokatzeraz ez aurkezteagatik. Asteburu

honetan gertatu da hori, joan den astean ere gertatu zen eta hemendik aurrera ere gertatuko da.

“Zereginik badaukagu? Ez. Ba ez gaituk joango!”. Parte hartzea ei dute gehienek helburu... sailkapenean ezer egiteko aukera barik geratzen diren arte.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



Pavimentos AGR EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Franciskanerr	12	10	1	1	59	29	21
Orlando Piratas	12	10	0	2	76	33	20
Sokoakoak	12	8	2	2	82	42	18
Argi Ibili	12	8	1	3	72	32	17
Kamasutra	12	7	3	2	57	26	17
Arrasate Kirolak	12	7	2	3	40	38	16
Sortu Informatika	12	6	3	3	63	52	15
Totem	12	6	2	4	54	40	14
D.A. Iritzuz	12	6	1	5	55	43	13
Jotakabau	12	5	3	4	48	41	13
Kakajauri	12	5	1	6	39	39	11
Bukanak	12	4	2	6	58	44	10
Uglys Txinato	12	2	4	6	34	58	8
Gaztetxokoa	12	3	0	9	30	82	6
Gualtrapas	12	3	0	9	37	76	6
Alealeee	12	2	1	9	28	85	5
Toss-Tehaman	12	2	1	9	20	77	5
Tronkoteak	12	0	1	11	2	17	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	12	10	1	1	65	34	21
Txeyenex	12	10	1	1	52	21	21
Adelaida Haizea	12	8	1	3	55	24	17
Bar Okorotegi	12	7	2	3	39	19	16
DKB	12	8	0	4	43	35	16
Lorategi	12	7	1	4	36	32	15
AC Surkos	12	7	1	4	47	36	15
Los Heredia	12	6	2	4	32	28	14
Hirei	12	7	0	5	46	30	14
Ojo Avisore	12	5	3	4	47	40	13
6. Proyecto	12	5	2	5	33	34	12
Fraguel Gol	12	4	1	7	31	38	9
Altza Porru	12	4	1	7	30	39	9
Aizpun Bila	12	3	2	7	16	29	8
Kopyprest	12	2	1	9	30	74	5
Kirten Tropel	12	2	0	10	17	48	4
Berango Sukal.	12	2	0	10	24	38	4
Los Dalton	12	1	1	10	32	76	3

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 4 - Gualtrapas 2
Arrasate Kirolak 3 - Franciskanerr 7
Argi Ibili 1 - Tronkoteak 0
Bukanak 9 - Toss-Tehaman 0
Orlando Piratas 4 - Sokoakoak 2
Sortu Informatika 6 - Alealeee 1
Totem 8 - Uglys Txinato 1
D.A. Iritzuz 2 - Jotakabau 1
Gaztetxokoa 2 - Kamasutra 6

B Taldea

Los Heredia 3 - Kirten Tropel 1
AC Surkos 4 - Lorategi 5
Ojo Avisore 2 - Fosforos 5
Berango Sukaldek 0 - Fraguel Gol 2
Txeyenex 2 - Bar Okorotegi 1
Hirei 3 - 6. Proyecto 4
Kopyprest 5 - Los Dalton 5
Adelaida Haizea 1 - Altza Porru 0
Aizpun Bila 0 - DKB 1

D Taldea

Construcciones Fercon 0 - Irati STS 13
No Comment 1 - A ti que te importa 3
Anbotoste KT 6 - Elisabeth 1
Insert Coin 3 - Bar Nuevo 4
Betraye 4 - Txarokis 0
Potrosorri 6 - Arrasate zoo 7
Borroek & Roll 2 - Trikiti 5
Ganbelas 3 - HMKL 3
Los Dimy 2 - Lautherbrunnen 3

E Taldea

Excavaciones Lete1 - Leya 5
Pub People 4 - Ke oxtias!!! 5
Resakas 3 - Cartonajes Igamo 2
Zotz-Motz 2 - MSM Ingenieria 4
Pepelus 0 - Cerveceria Leniz 12
Aurrera Bolie 4 - Perrahotsa 2
Artzankos Udalaiz 5 - Koka Juniors 1
Danok Lagun 5 - Baneuko 2
Petroleros 0 - Kriskibalda 9

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
A ti que te importa	12	10	1	1	50	31	21
Lautherbrunnen	12	9	1	2	78	42	19
Anbotoste KT	12	9	0	3	46	24	18
Irati STS	12	9	0	3	60	28	18
Bar Nuevo	12	7	3	2	65	32	17
Betrayer	12	8	1	3	57	38	17
Ganbelas	12	7	3	2	46	31	17
Trikiti	12	7	2	3	49	23	16
Insert Coin	12	7	0	3	56	45	14
Los Dimy	12	6	2	4	30	32	14
Borroek & Roll	12	5	0	7	50	46	10
Arrasate Zoo	12	3	1	8	26	42	7
Potrosorri	12	2	2	8	30	42	6
No Comment	12	3	0	9	28	47	6
HMKL	12	2	1	9	30	72	5
Elisabeth	12	1	3	8	23	49	5
Txarokis	12	1	1	10	36	69	3
Constr. Fercon	12	1	1	10	30	97	3

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Pub People	12	10	0	2	83	32	20
Aurrera Bolie	12	9	2	1	52	27	20
Cerveceria Leniz	11	8	1	2	48	20	17
Artzankos Udalaiz	12	7	2	3	41	28	16
MSM Ingenieria Int	12	7	1	4	43	23	15
Zotz-Motz	12	7	1	4	43	35	15
Perrahotsa	12	7	0	5	38	35	14
Danok Lagun	12	6	2	4	44	37	14
Koka Juniors	11	6	0	5	44	39	12
Pepelus	12	5	1	6	45	47	11
Leya	12	4	3	5	33	35	11
Petroleros	12	3	3	6	25	44	9
Ke Oxtias!!	12	4	0	8	44	49	8
Excavaciones Lete	12	4	0	8	38	49	8
Resakas	12	3	1	8	18	48	7
Cartonajes Igamo	12	3	1	8	43	55	7
Kriskibalda	12	3	0	9	34	57	6
Baneuko	12	2	0	10	33	89	4

Hurrengo partiduak

13. ihardunaldia

Larunbata 20

Zaldibar

8.50 Zotz Motz - Cartonajes Igamo
10.00 Kopyprest - Bar Okoretegi
11.00 No Comment - Irati STS
12.00 Txeyenex - Los Dalton
13.00 Toss tehaman - D.A. Iritzuz
14.00 Anbotoste K.T. - Los Dimy
15.00 Construc. Fercon - A ti que te importa
16.00 Argi Ibili - Gaztetxokoa
17.00 Adelaida Haizea - Fraguel gol
18.00 Totem - Sokoakoak
19.00 Aurrera Bolie - Kriskibalda

Iturripe A

11.00 Bar Nuevo - Ganbelas
12.00 Pub People - Leya
13.00 Kakajauri - Franciskanerr
14.00 Insert Coin - Elisabeth
15.00 AC Surkos - Kirten Tropel
16.00 Excav. Lete - Ke oxtias!!
17.00 HMKL - Arrasate zoo
18.00 Artzankos Udalaiz - Cerveceria Leniz
19.00 Orlando Piratas - Uglys Txinato

Iturripe B

13.00 Los Heredia - Lorategi
14.00 Resakas - Petroleros
15.00 Sortu Infor. - Kamasutra
16.00 Baneuko - Perrahotsa
17.00 Arrasate Kirolak - Gualtrapas
18.00 Pepelus - Koka Juniors

Igandea 28

Zaldibar

8.50 Jotakabau - Alealeee
10.00 Borroek & Roll - Txarokis
11.00 Berango Sukald. - Fosforos
12.00 Betrayer - Trikiti
13.00 Cerveceria Leniz - Koka Juniors

Iturripe A

11.00 MSM Ing. Int. - Danok Lagun
12.00 Potrosorri - Lautherbrunnen
13.00 Hirei - DKB

Protagonista

Jose Merino Los Dimy

- Zer gertatu zaizue gaurkoan?

- 2-0 irabazten hasi gara, baina azkenean galdu egin dugu. Zorte txarra ere izan dugu eta.

- Sailkapenean ondo?

- Bahor, erdialdean. Horrela jarraitzen badugu, ez dugu bigarren fasera pasatzeko aukera handirik izango.

- Eta zuen taldean zein talde ikusten dituzue indartsuen?



- Ez dakit... Trikiti onak direla esaten dute baina ez dabilta oso ondo, eta gero ez dakit, Iturriotzekoak, aurreko urtean finalerdietan ibili zirenak, guri 8 eta 0 ir-

bazi ziguten.

- Eta txapelketa irabazteko?

- Zaila da hori erantzutea, emaitzak asko aldatzen dira eta, partidu on bat egin eta behar bada gero galdu egiten dute. Ez daukat faboritorik.

- Zer irudituko litzaizuke Zaldibarko txapelketa egin beharrean herrien arteko beste bat egingo balitz?

- Ondo, konpetentzia gehiago egongo litzateke. Oso urrunera ez bada, ni neu prest egongo nintzateke asteburuetan mugitzeko, alde batetik bestera joateko.

Protagonista

Jorge Ezkurra Lautherbrunnen

- Nondik atera duzue izen hori?

- Suitzako herri bat da, eta kontuz idazterakoan, beti idazten dute gaizki eta. Zein izen jarri asmatu ezinik geunden eta lagun batek liburu baten bilatu eta hainbat izen ekarri zituen, eta hori aukeratu genuen. Polita da ez?

- Eta zuek zer zarete, koadrilakoak?

- Bai, esan daiteke koadrilakoak gara.

- Denbora asko Zaldibarko txapelketan?

- Uste dut hau laugarren urtea dela. Esperientzia ona da,



ondo pasatzera etortzen gara eta. Gertatzen da aurten sekula baino hobeto gabiltzala eta orduan serioago hartu dugu.

- Gaur partidua irabazi duzue, zortea ala lan ona?

- Tentsio handiko partidua

izan da. Los Dimy talde furtua da, eta zorte apur bat eduki dugu, golak azken momentuan sartu ditugu eta. Dena dela partidu osoan sartuta ibili gara talde biak.

- Bigarren fasean orduan seguru...

- Sekula ezin da esan hori. Bigarrenak gara baina gure multzoan ekipo gehienak bateratuta samar goaz, partidu pare bat galdu eta behera segituan.

- Ez duzue lehen postuetan egoteko ilusiorik?

- Ilusioa bai eta baita gogoia ere. Alde horretatik ez dago arazorik, gero gauzak gaizki irteten badira, ... ba ez da ezer pasatzen.

Labur

TALDEA KANPORATUA

Altxa Porru taldea txapelketatik kanpo geratu da, joan den asteburuan jokatu beharreko partidura ez aurkezteagatik.

HAIZEA PROTAGONISTA

Igandean jaun eta jabe izan zen haizeak izan zuen eraginik Zaldibarko txapelketan. Iturripen partidua jokatzen ari zela, haizeak manpara bat hautsi zuen eta kantxa kristalez bete zen, arrisku handia sortuz.

OMENALDIA SANTI BOISARI

Cerveceria Leintz - Pepelus partidua hasi aurretik omenaldi txiki bat egin zitzaion joan den astean hil zen Santi Boisa jokalaria. Minutu bateko isilunea egin zen, bere kamiseta eta lora-sorta bat kantxa erdian jartzea-ekin batera.

JOKO ZIKINARI ERANTZUN GOGORRA

Lorategi, Txeyenex eta Bar Okorotegi taldeek, joko zikina dela eta, kanporatzeko abisua jaso dute. Berdin jarraituz gero, hurrengoan txapelketatik kanpo utziko dituzte.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE

Tfnoa: 79 98 94

Es Lu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



Kamasutra



Aurrera Bolie



Los Dimy



Gazte Txokoa



LORAMENDIN


%30

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak eta abar

BEHERAPENAK!

**ZAPATILAK
%20-50**

San Andresen eta Garibaien



Batez ere gizonezkoak joaten dira zerbitzu-gunera.

Autoak garbi-garbi

Maria Agirre

Orain dela urte eta erdi autoak garbitu, olioaldatu eta konponketa txiki batzuk egiteko tokia egokitu zuen Udalak Garagartza inguruan. Orduetik jende askok izan du toki horren berri. Ostiraletik igandera autoendako zerbitzu-gunea erabat beteta egoten da. Autoak garbitzeko makinak edonon dauden arren, oraindik bada bere eskuekin garbitzea gura go duenik. Disdiratsua goa geratzen ei da!

Zapatu arratsaldea, eguraldi ona. Horrelakoetan gertatu ohi denez, autoendako zerbitzu-gunea beteta. Alde batean garbitzeko zain dauden autoak aparkatuta. Parean bi lagun autoak urarekin garbitzen. Harantzago, beste bi autori olioaldatzen.

Giro ona zegoen joan den zapatuan, autoak garbitzeko

Garagartza inguruan prestatu den tokian. Asteburua izanik, gainera, jendea hizketarako gertu.

BENETAKO ARRAKASTA

Ez da hainbeste denbora jendea erreka ondora joaten zela autoa garbitzera. Gaur egun guztiz debekatuta dago hori egitea, erreketara isurtzen diren jabo eta abarrek ingurugiroari kalte handia egiten

diote eta. Arrasaten, gainera, ez dago horretarako beharrik. Astirik izan ez edo autoa garbitzea gustoko ez duenak makineta jotzen du. Beste batzuk, ordea, Garagartza aldera joaten dira. Han 300 m² inguruko tokia dago autoa dohainik garbitzeko. Hori bai, norberak egin behar du lana.

Luis Romero hilean behin eta ahal bada birritan joaten da zerbitzu-gunera. Zapatuan

ere hantxe zegoen. Ordu erdi behar izaten du autoa barrutik eta kanpotik garbitzeko. "Gustoko dut nik neuk garbitzea, makinek noizbait marraren bat utzi didate eta. Gainera, merkea da".

Bigarren aldia da Asier eta Inigok autoa garbitzeko dagoen modu merkeena aukeratu dutela. Lagun batek komentatu zien tokia ondo zegoela, eta eurak ere iritzi berekoak dira.

Francisco Fernandezek, berriz, hasieratik ezagutzen du tokia. "Ahal dudanean eskuz garbitzen dut autoa, baina denbora faltan nabilenean makinara eramaten dut".

Mikel Azkaratek komunikabide baten bidez izan zuen tokiaren berri. "Behin probatu nuen eta ordutik hona etortzen naiz. Lan egin behar da, baina norberak garbitu eta autoa disdiratsu ikusteak poztasuna ematen du".

Batzuk hasieratik, beste batzuk orain dela gutxi. Kontua da behin joaten dena hurrengo ere joaten dela, eta tokiak erabateko arrakasta duela.

ZER EGIN DAITEKEEN

Denetik egin daiteke zerbitzu-gunean. Alde batean sei aparkaleku daude. Toki hori aprobetxatzen du jendeak autoa barrutik garbitzeko. Horrez gain, bi mangera daude autoa urarekin garbitzeko. Hasiera batean dutxa antzeko sistema jarri zen, baina ura presio gutxiarekin irteten zenez, ondoren mangerak jarri ziren. Azkenik, autoari olioia aldatzeko edo beste konponketa batzuk egiteko zuloa dago, zulo horretan beste bi autorendako tokia.

Gizonezkoak eta emakumezkoak egoten dira zerbitzu-gunean, baina batez ere gizonezkoak. Eurak izaten dira olioia aldatzeaz eta konponketa txikiak egiteaz arduratzen direnak. Arantzak esan


bezala, "nik barrutik eta kanpotik garbitzen dut autoa. Olioia aldatzeaz nire mutil laguna arduratzen da, nik ez dakit horrelakorik egiten eta".

Baina autoa garbitzeaz gain, lagunak ere egin daitetzke. "Jaboa falta bazaizu ondokoari eskatzen diozu eta hizketan hasten zara. Bestela, itxaroten zaude eta ondokoia ezagutzen duzu" dio Franciscok. Zapatuan Elgoibarren bizi den portugaldar bat ezagutu zuen. Biak ari ziren olioia aldatzen eta bitartean, kontu kontari. Izan ere, arrasatearrek eta kanpotarrek ezagutzen dute tokia. Jose Luis Martisek zapatuan ezagutu zuen lehen aldiz zerbitzu-gunea. "Lagun batek esan zidan Arrasaten toki hau zegoela, eta autoari olioia aldatu behar nionez, hona etortzea erabaki dut. Elgoibar inguruan ez dago horrelakorik. Oso ideia ona iruditzen zait horrelako zerbitzu bat jaritzea".

AKATSAK ERE BAI

Ospe ona du zerbitzuak baina akatsen inguruan ere mintzatu ziren lekukoak. Asier eta Inigoren ustez, tokia txikiegia da. Arantzaren iritziz, ondo egongo litzateke barrukoak garbitzeko irengailu bat ere eskura egongo balitz.

Luisek, berriz, zuloaren gainean hitzegin zuen. "Zuloa gaizki zainduta dago, euria egi-



Orain dela zenbait urte jendeak erreka ondoan garbitzen zuen autoa. Gaur eg...

ten duenean, adibidez, lokatzez betetzen da. Horrez gain, saretxoren bat jarri beharko lukete, bestela olio tantak jausten dira". Ez dezala inork pentsa zuloa olioaz beteta dagoenik, baina egia da bertara doana zapata zikinekin ateratzen dela. Horregatik, plastiko batzuekin estali behar izan zituen zapatak Luisek.



Horrez gain, zakarrontzi bat ere eskatzen dute hara joateko ohitura dutenek. Egia esan ez da eskari handiegia, eta bai derrigorrezkoa. Zapatuan, adibidez, olio poteak ikus zitezkeen lurtean pilatuta. Poteak eta beste zakar batzuk uzteko edukiontzia izugarri eskertuko luke jendeak.

Egia esan zerbitzu-gune-

"Arrakasta handia du autoak garbitzeko guneak. Astebukaeretan batez ere beteta egoten da"

"Denetik egin daiteke: autoa barrutik eta kanpotik garbitu, olioia aldatu... guzti hori dohainik"

"Erabiltzaileen ustez, zakarrontzi bat jarri beharko litzateke"



Saur eguneko horretarako beharrik.

Autoari olioia aldatu ahal izateko zuloa dago.

aren inguruak ez daude oso ondo zainduta. Ondoan dagoen erreka inguruak zikin samarrak daude, eta zelaia-zen zati bat nahiko belztuta dago, olioia lurrera isurtzen denaren seinale. Han zegoen baten esanetan, olioia uzteko dagoen bidoia ez da egokia.

Jendeak arduraz jokatu-ko zuela pentsatuz, Udalak ez du toki horren ardura zuzenean eramango duen inor jarri. Ezin da esan jendeak arduragabe jokatzeko duenik, baina edonor konturatuko litzateke aldaketa batzuk egin behar direla.

Zerbitzu-gunetik irten eta Meca parean autoak garbitzeko dagoen tokira abiatu naiz. Ezin esan utzik zegoenik. Autoa makinan sartzeko zain zegoen batek esan bezala, "ez dago gauza erosoagorik!".




Argazkian ikusten den moduan, zerbitzu-gunea nahiko zikina dago.

Arrasate Pilota Taldean 82 gazte pilotan jolasten ikasi nahiean

Benjaminekin hasi eta pilotari nagusien arterainoko zubia betetzen Mauri Zubillagak, Arrasate Pilota Taldeko entrenatzaile bakarrak gaur egun. Juanito Osinaga, Ramon Zuazubiskar eta beste lau lagun ere izaten ditu lagun-tza behar duenerako.

Santo Tomas txapelketa dela, San Andreskoa, San Juanetako binakakoa, Promozio lehiaketa... oportretan izan ezik, egunero entrenatzen dute Arrasateko pilotariak: astelehenetan benjaminak, asteazkenetan kadeteak eta ostiraletan alebinak. Helduek, berriz, Aramaion egiten dituzte entrenamenduok, astearte eta ostegunetan. Iturripen biltzen dira normalean pilotari gazteak, eta entzuten da hainbat kexa, Iturripeko frontoien baldintzak ez dira eta behar bezalakoak. "Euria egiten duenean izaten da okerrena, pilota asko busti eta alperrik galtzen dira eta. Iaz sare bat jarri genuen, baina hala ere pilota batzuk joaten ziren kanpora. Frontoi berriaren beharrik dagoen? horixe, baldintza onetan egoteaz gain herrian zaleztasun izugarria piztuko zue-



Pilotari izateko ikasten ari diren ume ugari biltzen da Iturripen.

lako". 82 pilotarirekin egiten du lan Maurik, eta hainbesteren artean, denetarik egon behar du derrigorrez, onak, ez hain onak, txarrak... baina ba ote dago zaleztasun izugarria pizteko bezalako pilotaririk. "Beno, ikusten da irten irten-go direla pilotariak. Herritik kanpo irtetzen garenean ikusten da hori, gure bikoteek txapelketetako finalerdi edo fina-

lerdietara iristen direnean behin eta berriz, eta noiz behinka txapelketak irabazten dituztenean. Eta orain hori gertatzen da, beraz itxaropenez begiratu behar aurrera".

Profesionalak iristeko moduko pilotaririk ateratzen den edo ez denborak esango du; edozein modutan ere, argi dago azken urteetan baino sasoi hobea ikusten zaiola

orain garai batean Arrasaten sekulako fama eta ospea izan zuen kirol honi. Eskuak poliki poliki berotu ondoren erreboteak lortzeraino iritsi nahi duenak badaki zer egin, lehen aipatutako egunetan Iturripera agertu eta jokatzeko gogoia adierazi. Ea Mondragones, Zurdo etabarren izenak beste aideratzen diren gaztetxo hauenak.



Multikirola Igerilekuan

Musakolako kiroldegiko igerilekuan, larunbat honetan, Multikirola kanpainaren barruan, Igeriketa eta Uretako jolasak burutuko dituzte 3. eta 4. mailako haurrek. Talde bakoitzak ordu betez izango du erabilgai Musakolako igerilekua, goizeko 9.30etatik 12.30ra. Kirola apur bat eginez, goiz eder bat igaro eta lagunekin jolasteko aukera paregabea.

Kirol gehienak etxean asteburuan

FUTBOLA Mondrak derrigor irabazi behar

Mondrak aurrera egiteko aukera izango du asteburu honetan, nahiz eta ez duen lan erraza izango. Santurtzi dator Atxabalpera igandean arratsaldeko 3.45an jokatu den partidura. Santurtziarrak ez dabilta aurten izugarriko kanpainarik egiten ari, sailkapeneko erdialdean kokatuta daude eta, hamabigarren postuan. Dena den, mondragoetarrei atzera edo aurrera egiteko garaia iritsi zaie, zirt edo zart. Gaur arteko partidua garrantzitsuak izan dira, baina are garrantzitsuagoak izango dira hemendik aurrerakoak. Orain arte, galduz gero, denbora geratzen zen gaizki egindakoak konpontzeko; liga aurrera doan heinean, aukera gutxiago horretarako. Egoera txarra da, baina ez izan zitekeen bezain txarra eta oraindik badago itxaropena izateko arrazoirik.


SASKIBALOA Garaipena eta ikuskizuna?

Urbina-Maltzaga asteburuko partidua irabaztera derrigortuta dago, bi arrazoi medio: joan den astean irabazitako partidua bat galdu zuelako batetik; beste-

tik, arrasatearrek ikuskitun eder bategaz gozatze-ko gogoia dutelako. Cies Vigo taldea izango dute aurrean, sailkapenean puntu bat gehiago duena. Teorian Urbina-Maltzagak ez du arazorik izan behar partidua aurrera ateratzeko, azken fitxaketei esker gogotik indartu da eta. Iturripen azken partiduan gertatu zena gertatu ondoren, ikusmina dago saskibaloi-zaleen artean igandeko partiduen aurrean.

ESKUBALOA Lehenengoaren bila

Eskubaloikoak lehen garaipenaren bila aterako dira zapatuan arratsaldeko 6etatik aurrera kiroldegiko kantzara. Cantabria taldea izango dute arerio, sailkapeneko erdialdean kokatutakoa. Herreroren mutilek joan den astean liderraren aurka jokatu zuten moduan jokatzen badute, ez dute arazorik izango partidua aurrera atera eta aurtengo lehen garaipena eskuratzeko. Hori bai, beti behar zorte apur bat eta arerioaz gain beste inork ez parte hartzea partiduan. Izan ere, joan den astean arrasatearrak oso haserre agertu ziren arbitroek Avileseko partiduko azken minutuetan izan zuten jarrerarekin.



Fernando Zufiria, merezimendu saria berarentzat.


AUKEA sariak erabakita

Erik Martin karatekak eramango du aurten AUKEAk kirolari onenari ematen dion saria; taldeei, dagokienez, berriz, emakumezko Mondrari emango zaio. Kirol merituari ematen zaion saria, azkenik, Fernando Zufiriarentzat izan da.

Erik Martini saria emate-rakoan, kontuan hartu da 16 urteko gazte honek, 1994an karateko gerriko beltza lortu zuela eta iaz, Euskadiko txapelduna izan zela kadeteetan. Saririk ez, baina kirolarien saillean, aipamen berezia jasoko dute Enrike Kabiketa eta M^a Jose Gil korrikalariek egindako lan berezia eskertzeko nolabait.

Taldeen sariaz, esan behar Mondrako nesken iazko denboraldia kontuan hartu dutela AUKEAkoek sari hori emateko. Aurtengo denboraldian jarraipen bikaina izan ten ari den denboraldia hain zuzen ere.

Fernando Zufiriaren lana, berriz, oso ezaguna da atletismo munduan. Hainbat urte pasa du Fernandok Arrasate Atletiko taldea entrenatzen. Lan handia egindakoa Fernando, inolako duda barik, baina lanaz gain, lana zein baldintzetan egin dion hartu zaio kontuan, eta baldintza horretan lortu dituen emaitzak. Lau hitzetan: lan-baldintza txarrak, emaitza bikainak.



Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Marta Izagirre

Arrasate Musikal akademiaren egoeraz mintzo

Txikitatik ezagutzen du Martak Arrasate Musikal, hasiera hasierako ikaslea da eta, baina azken hilabetetan beste gauza bat ikasi behar izan du: zuzendari izaten. Dagoeneko izan du denbora akademiaren egoeraz jabetzeko eta doinu polita entzuten dio musika eskolari.


— Zein da akademiaren egoera?

— Ekonomikoki udalarekin daukagun harremana asko hobetu da. Hilean behin egiten ditugun batzarretara bi zinegotzi etortzen dira. Eurak gure beharrak ikusten dituztenez errezagoa izaten da adostasun batera heltzea. Pedagogikoki ere onera egin dugu. Azken hiru urteotan gora egin du ikasle kopuruak, orain 548 ikasle daude. Nagusiendako eskolak ematen ditugulako eta akademiara sartzeko eskatzen dugun adin muga zabaldu egin dugulako gertatu da hori: orain 4 urtekin akademiara sartu daitezke umeak..

— Irailean 4-7 urte bitarteko umeentzat klaseak ematen hasi zineten. Harrera ona izan dute?

— Oso esperientzia positiboa izaten ari da. 46 ume daude maila honetan; ez gehiago, talde bakoitzean 10 ume baino gehiago ez ditugulako nahi. Bi irakasle egoten dira ume hauekin eta euren lana oso gogorra da. Hain ume txikiekin egon eta arreta jarri dezatela lortzea ez da lan erraza baina emaitza onak lortzen ari gara.

— Duela 4 urte musika eskolak jende nagusiarenga-



na zabaldu zenituzten. Hauek ere ikasten hastera animatzen dira?

— Oso animatuta etortzen dira baina eskolak ezin izaten dira umeekin bezala antolatu. Musika ikasteko irrikitan etortzen dira baina oso lanpetuta egoten dira eta askotan ez dira klasera etortzen. Bestalde, etxean ikasi beharrekoa ez dute ikasten... azkenean irakasleok gara euren erritmorra moldatu behar izaten dugunok. Dena dela, gogoz ikusten zaie eta duela lau urte izena eman zuten gehienek jarraitu egiten dute oraindik.

— Nagusien artean ze instrumentuk daukate arrakasta handien?

— Akordeoia da gehie-

nek jo nahi izaten dutena. Pianoa eta flauta gustatzen zaizkie, baita kitarra ere, baina sokazko instrumentuak ikusi ere ez dituzte nahi, ez dago bibolinik jotzen duen nagusi bakar bat. Egia esan talde polita da nagusia; "Los Jurásicos" instrumentu taldea eta guzti sortu dute!

— Duela gutxi "Aschero" musika sistemarekin atzeratuengana ere zabaldu zuten musika ikasteko aukera. Zer moduz doa?

— Jose Ramon Vitoriak ematen ditu eskola berezi horiek. Madrileran joan zen sistema ezagutu eta eskolak nola eman ikusteko eta orain 6 atzeratu dauzkagu akademian musika ikasten. Kolore

eta zenbakien bidez lortzen dituzte musika notak identifikatzea eta dagoeneko badabiltza abesti batzuk jotzen. Eurendako oso pozgarria da musika ikasi ahal izatea, baita euren gurasoentzat ere.

— Azkenaldian gutxi entzuten zaio orkestrari...

— Zuzendariak, Etxebarriak, 3. mailatik gorako ikasle ez osatutako orkestra bat nahi zuen baina kondizio hori betetzen zuen ikasle gutxi zegoenez, sokazko instrumentuarekin esperientzia gutxiago zutenekin hiruko eta lauko taldeetan hasi zen lanean. Orain haizezko instrumentuak sartu dira orkestran baina oraindik, orkestra sinfoniko bat baino, ganbara orkestra bat dela esan behar da. Gutxinaka gutxinaka instrumentu berriak sartzen dira baina hori prozesu geldoa da. Dena dela hobe da ikasleei ondo irakastea eta talde sendo bat sortzea kontzertu handiak edonola ematen hastea baino.

— Azken urteotan ikasle izandakoak instrumentu irakasle izatera pasa dira. Zergatik?

— Duela urte batzuk erabaki genuen politika bat da, musika ikasketak amaitu eta gero akademian ikasle izandakoak irakasle izatera pasatzea. Pertsona ezagunak, konfidantzazkoak dira eta kanpotik etorritako irakasleak baino gehiago inplikatzeko dira akademiako lanean. Azkenean emaitzak ikasleengan isladatzen dira, irakaslearekin harreman sakinagoa lortzen dute eta.

"Azken hiru urteotan gora egin du akademiako ikasle kopuruak, orain 548 ikasle daude"

Estibaliz Ormaetxea Haratuzteetako kartel lehiaketaren irabazle


Estibaliz Ormaetxeak irabazi du aurtengo Haratuzte kartelen lehiaketa. Udalak urtero antolatzen duen sariketa honetara, 12 lan aurkeztu dira aurtentzen, iaz baino hiru gehiago. Epaimahaikide izan den Amaia Bengoak adierazi duenez, aurtengo lanen maila eta kalitatea beste urte batzuetakoen antzerakoa izan da.

Kartel iragarlea aukeratzearaz gain, epaimahaia bi kartel finalista aukeratu zituen, Amaia Martiartu eta Gurutze Galbeterenak hain zuzen ere baina, hauek ez dute diru saririk jasoko. Irabazleak, Estibaliz Ormaetxeak, 50.000 ptako saria etxeratu du.

Kartel orijinala eta bizia

Epaimahaia Jose Ramon Arkauzek, Jesus Mari Arcek, Yolanda Perez de Arenazak eta Amaia Bengoak osatu dute. Azken honek aipatu duenez, bere koloreagatik, bizitasunagatik, ondo landutako teknikagatik eta originaltasunagatik aukeratu dute Estibaliz Ormaetxearen kartela. Estilo pikasianoko marrazkia dela aipatu du ere Amaia Bengoak.

Arrasateko San Juan eta Haratuzte kartel lehiaketan edizioetan oso ezaguna da Estibaliz Ormaetxea. 90ean eta 91an San Juanetako kartel lehiaketak irabazi zituen eta 92an haratuzteetako. Iaz 2. finalista geratu zen Haratuzteetako kartel lehiaketan. Estibalizek 63 urte ditu eta margolaria da. Joan den urteko azaroan margo erakusketari jarri zuen Harresi Aretoan baina koadrok baino, kartelak margotzea gehiago gustatzen zaiola esaten du.



Aurtengo lehiaketako kartela nola egin erabakitzeko denbora asko behar izan zue-

la eta garaipenaren berria sorpresaz jaso duela aipatu du. Bere marrazkiak sekula ez

Goiko biak finalista geratu diren kartelak dira, Amaia Martiartu eta Gurutze Galbeterenak egindakoak. Azpikoa berriz, aurtengo Haratuzte kartel lehiaketan irabazle atera dena. Estibaliz Ormaetxeak egin du.

direla estilo konkretu batekoak izaten azaldu du ere eta kaletik doanean ikusten dituen karteletara begiratu, ideia asko sortzen omen zaio Estibalizi.

Bestalde, azkenaldian Arrasaten margolari on asko dagoela uste du berak eta horregatik, ez zuela irabaztea espero.

Aurtengo lehiaketari dagokionez, fotokopia eta argazki manipulatu bidez egindako kartel asko aurkeztu dela esan behar da. Epaimahaia esan duenez ez dituzte era honetako kartelak alboratu, norberaren gustoa izan da eta azken erabakiaren arrazoia.

Gida

Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz-Gatzaga

96

ADI!

Zure telefonoa agertzen ez bada edo akatsik aurkitzen baduzu dei egin lehenbailehen 77 08 15 telefonora edo zatoz ARKOra (Azoka, 1). Otsailaren 23an egon litezkeen akatsen zuzenketa orri bat argitaratuko dugu.

Mila esker.

ARKO • ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

Zure telefonoaren lagunik onena!

● *Araceli Caballero*

Garapen aukera berdinen alde

Araceli Caballero kazetaria aspaldidanik da Manos Unidas taldeko partaide. Taldean emakume honen egin beharra sentsibilizazio arloa lantzea denez, herriz herri ibili ohi da taldearen lanari eta helburuei buruzko informazioa zabalduz. Joan den astean izan zen Arrasaten, hitzaldi bat eman eta ikastolako haurrei hitzegiten.

- Zein da zure lana?

- Hemengo jendearen sentsibilizazioa lortzeko pausuak ematea, komunikabideekin harremanetan egonda, kolaborazioak idatziz, eskaten dizkiguten datuak emanez, materiala erakutsiz... eta gero badugu geure aldizkaritxo bat, neure ardurapean.

- Zer moduz Arrasaten?


- Hasteko harrিতuta hitzaldia eman nuen tokiagatik, oso pleno areto dotorea iruditu zitzaidan eta. "Kultura ugari, eskubide berdinak" izenburuko hitzaldia eman nuen, izan ere horixe da orain aurrera eramaten ari garen kanpainaren izenburua. Gure taldean lana arlo desberdinetan banatzen da: alde batetik

hirugarren munduan aurrera eramaten diren proiektuen finantzaketa dago, mila inguru urtero; bestetik sentsibilizazio lana dago, iparraldeko konturatu gaitzen iparra eta hegoaren artean dagoen desberdintasunean, arrazoietan zein irtenbideetan, zer esan handia dugula; azkenik, hirugarren munduaren aberastasunaren berri ematea, hori aipagarria da eta.

- Zergatik aurten "kultura ugari, eskubide berdinak" kanpainaria?

- Apur bat nagusitzen ari den joeraren kontra joateagatik izan da. Mundu orokor batera goaz, kultur desberdintasun gabeko mundu batera, nagusitzen ari den kultura bat besteak menperatzen ari da... baina kultur arlo horretan berdintasunera jotzen den heinean, eskubide eta garapenerako aukeretan desberdintasunera jotzen da, hegoa eta iparraren arteko aldea areagotuz.

Garapenerako aukeretan berdintasunera jo nahi dugu, eskubide hori ziurtatzera, baina bakoitzak bere kulturari eutsiz, bere nortasunari, ez dadila kulturarik, hizkuntzarik eta herririk galdu. Ugartasun hori bakarrik mundu zuzen batean da posible.



- Eta oso urrun dago mundu hori?

- Urrunegi, gainera arazoak alde desberdin ugari du. Adituek, alde batetik, arazo makroekonomikoez hitzegiten dute, eta horrek konpontzea ez dago zuzen zuzen gure esku, baina bai egin dezakegula presio bat egoera hori alda dezaketenek aldatzen saia daitezen. Heziketa kontua ere bada. Badi-rudi bakarlariaren heziketa eman digutela, geure muge-tatik kanpo gertatzen denaz ez dugula ardurarik eduki behar, baina horrek ere osatzen du pertsona. Norberaren azaletik hara begiratu eta albokoaren edo urrunekoaren arazoez jabetzeko ardura hartu behar dugu.

Bestetik, badaude oinez-koon gertuago dauden arazoak, ahalegin txiki batekin aldatzeko modukoak: lana egin, lanean ari direnei lagun-

tza eskaini, elkarte eta taldeetan eratu...

- Ez da oso zaila jendearen jarrera hori aldatzea?

- Ez dakit. Jende askok ez du eta begien aurrean duena aldatzeko ezer egiten. Baina planteamendu gisa ere ez dago zeharo txarto, has gaitzen begien aurrean dagoena aldatzen, orduan ikusiko dugu eta haruntzago dagoena alda daitekeela. Ez zait oso garrantzitsua iruditzen galdetzea aldaketa zaila den edo ez, honelako mundu batean bizitzen jarraitzeko prest gauden edo ez galdetzea garrantzitsuagoa da.

- Arrasaten haurrekin egon zinen, garrantzitsuak dira?

- Haurrei beste ikuspuntu batzuk eskaintzeak asko balio du. Arrasaten Peruko indiarrei buruzko bideo bat ikusi eta beraiei buruz hitzegingenuen, eta idearik ere ez zeukaten horrela bizi zitekeenik. Munduaren beste ikuspegi bat ematea da, gero beraiek erabakiko dute zer egin.

● **"Nagusitzen ari den joeraren kontra joateagatik izan da, kultur desberdintasun gabeko munduaren aurka joateagatik"**



Argazkian agertzen direnatariko batekin hitzegin artean, makina bat zalantza izan da hemen inguruan, nongoa ote da argazkia? Pirineo aldea izan zen erantzunik aukeratuena, Ordesa ingurua zehatzago esateko. Protagonistatariko batekin hitzegin ondoren, belarriak makurtu eta jendea noraezean ibili zela aitortu behar, atzealdeko mendi hori ez da ba Anboto Zaharra! Mari

bere kobazulotik irten eta honantz etorriko balitz, a zelakoak esango zituen: "Nire etxea ezagutu ez? ze nolako euskaldunak zarete zuek, sorgin sorginenaren bizilekua ezagutzen ez duzuenak?". Imajinatzen dut bai, horrelakoren batzuk botako zituela.

Tira, imajinazioa alde batera, haria galdu aurretik argazkiari begiratu eta esan orain 40 urte ateratako

argazkia dela, Anboto azpian. Elur apur bat botata zegoen ordurako eta mendi buelta egitera joandakoak honako hauek, ezkerretik eskumara: **Juanito Axpe, Felix Iraola, Felipe Barrutiabengoa (Txirri), Sabin Amozarrain (Sabin Txiki), Pablo Ortiz de Guzman eta Jose Aperribai.**



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

Elektroinjekzio
Zerbitzua

LUCAS



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Z E R N A H I A G O ?

Juan Mari Zuazubiskar "Leniz Motor" dendakoa

- Noiztik dago zabalik denda? Duela 20 urte baino gehiagotik.
- Zenbat motor daude dendan? Bigarren eskuko eta berrien artean, sei.
- Zenbat balio du onenak? 2.774.000 pta.
- Merkeenak? 113.000 pta.
- Nondik etortzen dira erostera? Bergara, Oñati, Eskoriatza... ingurutik.
- Arrasaten badago motor zaletasunik? Bai, handia, baina orain behera egin du krisi ekonomikoa dela eta.
- Ze abiadura hartu dezake motor batek? 260 km/orduko.
- Zuk baduzu motorrik? Bai, Yamaha XS 400 bat.
- Izan duzu istripurik? Ez.
- kotxez ala motorrez bidaiatu? Motorrez.
- Joaten zara motor kontzentrazioetara? Ez, ez zait gustatzen.
- Motorrarekin nora joan zara urrunen? Ez dut bidaia luzerik egiten, ez daukat denborarik eta. Urrunen Donostiara edo Gasteizera joan naiz.
- Gauez bidaiatzea gustatzen zaizu? Ez, arrisksua da.
- Non daude motorrean ibiltzeko errepide onenak? Hemen inguruán behintzat ez. Gasteiztik aurrera, Burgos aldera.
- Motorzaleen artean zein da motorrik preziatuena? Honda CBR 600a.
- Zenbat urterekin hasi zinen motorrean ibiltzen? Hamalaukin.
- Zenbat hizkuntza hitzegiten dakizu? Bi: euskera eta erdera.
- Ze ordutan jaio zinen? Ez dakit.
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Ze musika gustatzen zaizu? Euskal musika, Benito Lertxundirena adibidez.
- Egon zara San Sebastianetan? Ez.
- Motokrossa, triala ala pista? Lehenengo biak.



LABURRAK

Meatzerrekako jaiak

Gaur hasten dira Meatzerrekako San Balerio jaiak. Arratsaldeko 8etan emango zaie hasiera eta 9etan auzo afaria egingo da. Bihar arratsaldeko 4etan ume eta gazteendako jolasak eta herrikirolak izango dira eta 5etan XV. Mus Txapelketa. Parte hartu nahi duen bikote bakoitzak 3.000 pta. ordaindu beharko ditu eta izena txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago eman. Sariak 30.000, 20.000, 12.000 eta 8.000 ptakoak izango dira. Gauean ere izango da festa-rik; gaueko 11etatik aurrera erromeria izango da "Anaiak" taldearekin eta goizaldean Txarri Harrapaketa eta txokolatada.

Igandean goizeko 11etan Meza ospatuko da San Balerio ermitan eta Goikobalu abesbatzak parte hartuko du. Eguerdiko ordu bietan amaiera emango zaie jaiari buruhandiek.



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)


Denborapasak

· ESAERA ·

“Hitza librea da, ekintza mutua, eta obedientzia itsua”

SCHILLER

· JEROGLIFIKOA ·



Bizkaiko herria.

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10					11	
12			13	14		
15			16			
17		18			19	
20					21	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Iturriotz kaleko liburudenda. 5. Erne. 8. Irudiak sortzeko ahalmena. 10. Lapurtzen duen pertsona. 11. Errepikatuz lelo. 12. Estatu Burujabeen Elkarte. 13. Trinkoa ez dena, harroa. 15. Aragoako probintzia. 17. Donostiako disketxea. 18. Musu. 19. Iparretarrak. 20. Richard, EEBBetako presidente ohia. 21. BOMM bateko bokalak.

Bertikalak 1. Ezin hil daitekeena. 2. Etekin bat lortu. 3. Ordorika abeslariaren izena. 4. Adina, gonbaraketa egiteko hitza. 5. Amerizioa. 6. Erlijiorako joera eta gogoia. 7. Ezelako. 9. Pasatu den denbora. 14. (Ald.) Txakur. 16. Igelaren antzeko anfibidua.

· HOROSKOPOA ·

Aries Auto ederra erosi ei duzu. Zeinek aguantatuko zaitu orain?

Taurus Zure abilidadak txunditurik uzten ditu inguruko guztiak.

Gemini Burugogorra zarelako izaten duzu burukomina.

Cancer “Aprobetxategi” galanta eginda zaude. Aberasteko asmoz?

Leo Hezurrak erabat gogorturik dituzu. Dantzan egitea komeni zaizu.

Virgo Zer egiten duzu hain xarmangarri eta liluragarri izateko?

Libra Ez zaitez pasa, lagun barik gertuko zara eta.


Scorpio Sinistea zaila den arren, azterketa garaiak on egingo ditu.

Sagitaris Begi-bistan dago zu ez zarela sukaldari trebea.

Capricorn Ideiak argitzeko hai-zeak ez ditu kalterik egingo.

Aquarius Zure ingurukoengan konfidantza handiagoa izan behar duzu.


Piscis Ezin zinemara joan. Normala, beti negarrez zaude.



weru®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

Eskola Mapa aztergai Astebete programan

Maria Agirrek pil pilean dagoen gaia aztertuko du gaur gauean Astebete saioan. Eusko Jaurlaritzak eskola publikoetarako egin duen Eskola Mapa berriari buruzko iritzia ematera etorriko dira Josu Izquierdo, San Andres Herri-Eskolako zuzendaria eta Danel Mendizabal, Erguin Herri-Eskolako idazkaria. Gonbidatuek Eusko Jaurlaritzari egindako proposamenak azalduko dituzte ere. Astebete saioa 9.30etan izango da.



KOMIKIA



Zagazar.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxe gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxe ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Jeroglifitxkoa:
Sondika.

Bertikalak: 1. Egokituz, 2. Irrikor, 3. Pa. 19. IK. 20. Nixon. 21. Oo. 13. Iragan. 15. Zaragoza. 17. Iz. 18. dimen. 10. Lapur. 11. Bo. 12. EBE.

Horizontalak: 1. Hire. 5. Adi. 8. In-

PROGRAMAZIOA



26 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

9.30etan

Astebete

Gaia: Eskola Mapa
Gonbidatuak: Danel Mendizabal, Erguin Herri-Eskolako idazkaria eta Josu Izquierdo San Andres Herri-Eskolako zuzendaria.

29 Astelehena

13.30etan

Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

30 Asteartea

13.30etan

Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

31 Asteazkena

13.30etan

Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock

1 Osteguna

13.30etan

Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

“Elkartean” saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta.
Elkartea: Udalpe

2 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

Etxebizitzak

- **Jakan apartamentua alokatzen da eski garaian. Garajea du.** Tfnoa: 70 60 21. Gauzez.
- **Garajea salgai edo alokagai.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Etxebizitza alokatzen da Erguinen.** Jantzi barik. Tfnoa: 77 10 91.
- **Garajea salgai Gurutze Txikin.** San Andres. Tfnoa: 79 26 89.
- **Irakaslea pisu txiki baten baten bila dabil.** Jantzitza ez badago ere balio du. Tfnoa: 79 01 32 (Utzi mezua).
- **Erdialdean pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Logela alokagai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Deustu-San Inazio** inguruko pisuren batean lekuri baduzu dei egin 79 34 58 tfnora. Aitor.
- **Garaje itxia salgai Kontzezino kalean.** Tfnoa: 79 37 67.

Lana

- **Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 77 03 32.
- **Emakume euskalduna eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 56 81.
- **Umeak zaindu edo denda baten lan egingo nuke.** Dei egin eguerdian edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.
- **Neska bat behar da etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 89 32.
- **OHO, REM nahiz BUPeko matematikako klaseak emateko gertu.** Tfnoa: 79 90 46. Susana.
- **Matematikazko klaseak:** algebra, kalkuloa, probabilitatea eta estatistika, ematen ditut. Tfnoa: 79 09 72. Joxe Felix.
- **Neska euskalduna bulegoak garbitu,** etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Jostuna behar da denda baten erroa konpontzeko.** Bidali datuak Arrasateko 259 postakutxatilara.
- **Lortu musika taldea ezkontzetan jotzeko gertu.** Tfnoa: 79 46 86. Txapel.
- **Neska gaztea umeak zaindu,** etxeko lanak edo lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 09.
- **Promotora batek kapitala jarriko duen arkitetu bat behar du.** Dei egin ordu batetik hiruretara 79 03 80 tfnora. Prieto.
- **Geriatria eta klinika laguntzaileak arazoak dituzten umeak eta nagusiak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 34 09.
- **Ingeleseko klase partikularrik hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 40 06.
- **Arratsaldean edozein lanerako neska euskalduna prest.** Tfnoa: 79 81 25. Dei egin gaueko 10etatik aurrera.
- **Leiapaintzaile esperientziadun diplomaduna lana egiteko prest.** Tfnoa: 79 70 45.
- **Dekorazio diseinatzailea behar da.** Tfnoa: 79 21 26.
- **Komertziala behar da.** Tfnoa: 79 21 26.
- **Asteburutan kanguro lana egingo nuko.** Tfnoa: 79 73 01. Olga.
- **Euskara, gaztelania eta ingelesezko klase partikularrik behar dira.** Tfnoa: 79 25 49. Iluntzean. Gorka.
- **Kontabilitate eskolak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 39 11. Goizez dei egin.
- **Neska gertu umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 77 94.

• **Euskara eta gaztelaniako itzultzailea behar dugu.** Tfnoa: 77 04 98.

• **Bulegoak, etxebizitzak,** edo atarteak garbitzeko gertu. Tfnoa: 77 09 56.

Salerosketak

- **Idazmakina elektronikoa salgai.** AEG Carrera II modeloa, memoriaduna, LCD pantaila... la berria. Dei egin 77 14 34 tfnora denda orduetan.
- **Baby-Confort kapota kotxea salgai.** Aulkia ere badauka. Bi urte baino ez du. Tfnoa: 44 53 68.
- **Montesa Cota 3-10 trialeko motorra saltzen dut.** Tfnoa: 79 97 72.
- **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilia. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.
- **Ski ekipo osoa salgai.** Salomon 875 fijazioak, Volk Super Competition tablak eta Koflach botak. Tfnoa: 79 47 48. Gaueko 8.30etatik 9.30etara.

Denetarik

- **Urrezko pultsera bat galdu zait San Andres eta Erdialde artean.** Rosita. Tfnoa: 79 26 25. Sarituko da.
- **Etxaguenen Gore-Tex eko txamarra bat eta eskalatzeko soka bat aurkitu nituen.** Tfnoa: 79 04 80.
- **Posterrak egiten ikasteko ikastaroa.** Ixa-lxe komiki taldeak antolatuta. Asteazkenetan 6etatik aurrera Aste Santura arte. Izenematea AEDn. Tfnoa: 77 12 28. Dohainik.

Aste Gazte

Lana

• "Correos"ek hainbat lanpostu kaleratu du. Goi mailako ikasketak behar duten 15 lanpostu; 250 laguntzaile lanpostu eta 525 sailkatzaile-banatzzaile lanpostu. Epea: urtarrilak 31.

Bekak

• "Kanpo-Arazaetako Ministerioak, honako beka hauek kaleratu ditu. a) Hizkuntz hobekuntza Frantzia, 96ko uda. Unibertsitate edo Eskola Diplomatiko-ko frantses-saileko azken urteetako ikasleei zuzendua. b) Peda-

gogi hobekuntza Frantzia, 96ko uda. Frantseseko irakasle espainolei zuzendua. c) Ikasketen zabalkuntza Bavariako Unibertsitatean, 96-97 ikasturtean. Lizentziatuak edo azken urteko ikasleak, alemana ezagutzen dutenei zuzendua. d) Hizkuntza eta literatura frantseseko udako ikastaroak, 96ko uda. Lizentziatuak edo azken urteko ikasleak, 35 urtetik beherakoak, frantsesa ezagutzea ezinbestekoa da. e) Ikasketen zabalkuntza Lovainako Unibertsitate katolikoan, 96-96 ikasturtean. Lizentziatuak, 35 urtetik

azpikoak, neerlandesa, ingelesa edo frantsesa ezagutzea eskatzen da. f) Musika-hobekuntza Luxemburg eta Esch sur Alzette-ko kontserbatorioan 96ko uda. Lizentziatuak, 35 urtetik beherakoak, frantsesa edo ingelesa ezagutu behar dira. Guztien epea, martxoaren 15ean bukatzen da.

Ikastaroak

• "16 urtetik gorako gazteei zuzendutako Irrati Tailerra Arrasate Irratian. 2 aukera: irratsaioak egiteari zuzendutako tailerra eta kontrol teknikoak ikasteari zuzenduta. Otsailaren 28tik maiatzaren 22ra, 24 ordu, asteazkenetan 7etatik 9etara. 3.000 pta./1.500 pta. ikasle eta langabetuentzat.

"Adinak odola hozten duenean eta iraganeko kontuak ditugunean plazerak, oroitzapenik maiteena azkenak jarraitzen du izaten eta gure gogoetatik gozoena lehenengo musuarena".

**LORD BYRON
OLERKARI INGELESA
(1788-1824)**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Fiesta BERRIA



Goxo hau
probatzeagatik hotel
batetan hiru gau
pasatzeko aukera
izango duzu zure
lagunarekin.

Zatoz Fiesta berria
probatzera!



MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • Tfnoa: 79 07 44 / 54 • Faxe: 79 62 54 • ARRASATE

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



**Eta orain,
eraikuntza
berrien
etxebizitzetarako
promozio
paregabeak!**

**Zatoz eta
informa zaitez!**



SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42